

BETI BIHOTZA AIPATZEN DUGU. ETA TRIPAK?

ANDONI EGAÑA

Bapatekotasuna, bertsolariarentzat, ideiak eta sentimenduak azaltzeko modua da. Modu hori ez datorkio antolatzeke gai ez izatetik; ez-ta pertsona azkarra dela eta, ezer antolatu beharrik ez duelako ere. Egungo gizartearen zati handi batentzat horixe da bapatekotasuna: aldezturik antolatu ez denaren aurrean, doi doi bizirik ateratzeko modua.

Bertsolariak ordea, kultur-ondare baten baitatik bereganatu du bapatekotasuna. Jolaserako edo jokorako zelai bat du, bere arau eta guzti, non bere buruarekiko eta inguruarekiko harremana dialektikoki burutu.

Bertsolariarentzat inprobisatzea, ongi antolaturiko arauen barruan aritzea da paradoxikoki. Bizi edo saiatu izan dituen egoerak zaizkio baliagarri. Ikasi egin du bertsolaritzaren arauak baliatzen,- neurria, errima, doinuak...- murriztaile baino lagungarri gerta dakizkion. Ingurukoaz adi egoten trebatu da, eta erne egoteaz gain, ikasi du interesatzen zaion hura buruan gorde eta sailkatzen, inprobisatze unean almazena ongi betea euki dezan.

Erabateko inprobisaziorik ez da. "Tabula rasa"tik ez da inor abiatzen. Hitza, ideiak...beti dira edozein inprobisazioren aldezturikoak. Zertan datza orduan, bapateko bertsolaritzaren berezitasun nagusia? Sortze unea eta entzulearen jasotze unea bat bera direla. Bertsolariak sortuahala jasotzen du entzuleak. Hartara, komunikazio-modua beste edozein ekitaldi moetan baino zuzenekoagoa da. "Performance" hitza duela hamarkada gutxi heldu zen gurera. Zerbait berezia omen zen. Eginahalako erakustaldia. Bertsolariok betidanik egin izan duguna, finean.

ARAUAK edo AZALEKO EZAUGARRIAK (SAKONEKOAK, ALEGIA)

Baditu bapateko bertsoak ezaugarri batzuk. KANTATUA behar du; ERRIMAduna behar du; eta NEURRI jakinei atxiki behar zaio.

Gutxi-gehiago azaldu egingo ditut hiru alderdiok. Baina ideia nagusi bat buruan dudala. Alderdi azaleko edo teknikoak bere berean azaltzeko joera izan dugu. Ahaztu egin zaigu nonbait FORMA/EDUKIA txanpon beraren bi alde baino ez direla. Eta beste edozein arte-moetan baino areago bapateko bertsolaritzan. DOINUAk garrantzia du. Baina ez hainbeste ongi-gaizki kantatzeak; komunikazioa indartzeko aukera egokia egin den edo ez den da giltzarria. NEURRIA ezinbestekoa da. Ez ordea musikako konpasaren gisa eraman beharreko zerbait, zer esan nahi litzatekeen kontutan hartuta, aukera egiteko garaian luze-laburrera aintzat hartzeko baizik. ERRIMA ez da aberatsa edo pobrea hoshidetasun mailari dagokionez soilik; esan nahi duguna arrakastaz esatea ahalbideratzen digun heinean da aberats edo pobre.

Entzulearekiko komunikazio biziago eta sakonagoa samurtu edo zaildu dezakete "azaleko ezaugarritzat" dauzkagu hauek. Eta ez da zer esaten dugun bakarrik. Zerbait esateko orduan arauak lagungarri edo oztopatzaile izan daitezkeela argi euki behar genuke.

1.- DOINUA

Munduan zehar ezagutu ditugun inprobisatzaile gehienek ez bezala, ahots soilez botatzen ditugu gure bertsoak. Kantua dugu laguntzaile bakar.

Kantu horien doinuek jatorri askotarikoa izan dezakete:

- Tradiziotik datozen doinu herrikoiak.
- Doinu berriak, neurritz eta errimaz egoki datozkigunak
- Propio sorturiko doinuak...

Erabiltzen diren doinuak garai garai purian jartzen direnak, askoz gutxiago badira ere, Joanito Dorronsorok Bertso Doinutegian 2400etik gora bildu zituen.

Datuetatik at, sakoneran zerikusia duten alderdiak nahi nituzke aipatu. Ahotsarena esaterako. Bozgorailuak iritsi arte, ahots indartsu eta ozena ezinbestekoa zuen bertsolariak. Azken berrengotaka urtean asko aldatu da hori. Orain, garrantziarik handiena, ahots onak edo entonazio perfektuak baino areago, esan nahi den hura esanindar handiagor transmititzeko lagungarri diren doinuak ongi aukeratzeak du. Bi mila eta gehiagoko doinu kopuru horren barne baitaude, sentimendu intimoak egokiago transmititzeko doinuak, epikarako egokiak, narratzaileko pare parekoak, deskripzioarakoak...

2. NEURRIA

Bertsolariak neurri jakin batzuetan, paradigma gutxi batzuetan inprobisatu ohi du. Paradigma horiek silaba kopuru jakinak dituzte, baina bertsolariak ez du sekula silabarik kontatuko. Doinuen jabe da. Badaki doinu haiek zenbat silabatakoak diren. Eta doinua behartu gabe aritzea aski du, eta horretan jarriko du bere indarra, silaba kopuru jakin bat osatzeko.

Bestalde, neurria beti da arazo - eta makulu ere bai aldi berean- bertsolariarentzat. Ez bait du ona eta txarraren arteko ñabardurarik. Eta ez baita almazena betez hobetzen den zerbait. Jarduna du prezixu. Eta jardun simulatarioa gainera ezinbestean.

Halere, neurriari dogokionez, azken urteetako joera bat nahi nuke aipatu. Neurri luzeko bertsoak kantatzearena, Txapelketatan batik bat. Izan daiteke azaleko kontua soilik. Luzimendurako eta gaitasun teknikoak erakusteko ariketa bat. Baina izan daiteke halaber, bertso gintzaren parametro berri batzuren adierazle. Joxerra Garziak bere tesian aipatzen duenez, entzulegoaren trinkotasuna galtzeak ekarri du testuinguruaren eta ingurutestuaren printzatea. Eta horrek, komunikazio arrakastatsurako testuaren garrantzia handitu du. Eta testuak garrantzia handiago hartu badu, luze-zabalera handiagoa behar izatea ere ulertzekoa da.

Aipatzekoa da, paradigmarik gehien gehienetan errima hitz-sorta bakarra erabiltzen dela, baina badirela salbuzpenak "décima" eta horrelakoetara hurbilagotzen gaituztenak. Gutxi dira ordea. Honakoak:

IPARRAGIRRE

-----10
----- 8 A
-----10
----- 8 A
----- 7 B
----- 7 B
----- 10
----- 8 A
-----10
----- 8 A.

JUANA BIXENTA OLABE

-----10 A
-----11 A
-----10 B
-----10 B
----- 5 C
-----10 C
-----10 C

3.- ERRIMA

Bertsoaren ezinbesteko osagaia da. Eta ez da hau ere, azaleko kontua bakarrik. Bertsolaritzan talde bereko errima-sortak erabiltzen dira bertso bakoitzean, arestian aipaturiko kasuak kasu. Errima-hitz horiek zenbat eta hoskidetasun handiagoa izan elkarrekin, orduan eta hobe. Baina errimak on eta txarren arteko ñabardura guztiak onartzen ditu. BURUA eta ORDUAk errimatu egiten dute, nahiz eta ez duten ELIZAN eta GERIZAN bezain bete errimatzen.

Errima aberats eta pobreen sailkapen ohikotik haratago ordea, errimaren gakoak errima-hitz izango denaren aukeraketa egokian eta errima-sorta bakoitzaren antolamenduaren baitan dago. Bertsolariak ez baitu nahi duen huraxe esaten, errima hitzek esaten uzten diotena baino. Eta errima-hitz "nagusia", bukaerakoa, aukeratzekoan aintzat hartu beharrekoa da hori. Gero aldiz, errima-sorta bakoitzean osatua daukan ordenamentuaz baliatuko da bertsolaria, bere diskursoari disdira emateko. Adibideen bidez errazago azalduko dudalakoan nago.

Har dezagun adibidez, INA bukatzen diren hitzen errima-sorta...

BAPATEKOTASUNEAN ERABILTZEN DEN ESTRATEGIA NAGUSIA.

Aukeratuko dugu doinu bat esanari lagunduko diona. Hautatuko dugu ongi esatekoaren luze-laburrera eta hautatuko errima-sorta bat bideak samurtuko dizkiguna. Baina zerbaiten zerbitzura dago hori guztia. Esan nahi dugunarena. Eta edukia, dena dela, hemen ez gara sartuko edukien azterketan eta nondik sortzen diren ikertzen, modu jakin batean ematen du aditzera bertsolariak.

Berrogei segundoko pildora tankerako hori entzulearen zirrara sortzeko modukoa izateko badu bertsolariak antolamendu modu nagusi bat: bukaeratik hastea.

Pernandoren egia izango da batzuentzat hau eta deskubrimendu izugarria beste batzuentzat. Baina hori du bertsolariak estrategia nagusi.

Bukaeratik hasteak abantaila handiak emango dizkio arlo askotan. Batetik, metodologikoki, nora joan nahi duen dakiela, errazago egingo du haranzko bidea. Bestetik, komunikazioari dagokionez, eta zuzeneko edozein ekitalditan are gehiago, erremate on batek sekulako balioa du. Gainera, entzuleak bertsolariaren prozesua juxtu batekoz bestera bizi du. Bertsolaria bukaera pentsatzen ari dela entzulea hasieraren zain dago. Eta bertsolaria aurrez buruan pasa duen atal bakarra botatzera doan unea da, hain zuzen, entzulearentzat braustakoena, itxaroten zuena. Gaztelaraz idatzi nuen behin:

"No es magia, pero se le parece. Es cuestión de que los focos de atención de emisor y receptor no coincidan. El bertsolari, en el momento en el que va a abrir la boca, tiene la mente en el final del discurso. El público se centra en las primeras palabras que salen de su boca. Y por eso le extraña tanto y disfruta de una manera tan grande cuando el bertsolari construye un texto que va in crescendo hasta el remate final, nítido y potente. Algo que el bertsolari ya sabía antes de abrir la boca"

Bertsolariak beraz, gaia entzun ondoreneko segundo gutxitan egiten duena hau da: zer esan pentsatu. Silaba kopuru jakin batera tolestatu esateko hori, eta doinu bat aukeratu silaba kopuru horretakoa, edo alderantziz: doinu bat aukeratu eta doinuaren silabatara tolestatu esanahia. Gero, errima-hitz gakoa izango dena aukeratu ongi. Beste errima-hitzen batzuk buruan pasa...eta kantuan hasi.

Honako prozedura hau ere adibideen bidez errazago emango dut aditzera:---

ESTRATEGIA NAGUSIAZ AT

Bukaera pentsatu eta hasieratik ekin. Ia beti horrela egiten da. Baina ez beti. Zorionez. Bestela aspergarria litzateke. Ez luke bertsolariak bere lana hain funanbulista sentituko.

Salbuespenak bi multzotan sailka genitzake:

- Norbere baitako arrazoiak
- Kanpotik ezarritako arrazoiak.

NORBERE ARRAZOIAK

Bertsolariak ahal duela bukaera pentsatutako ekingo dio berbaldiari. Baina denbora pasa eta ezer sortzen ez bazaio? Askotan erritmoari eustea garrantzitsuagoa izaten da beste ezer baino. Kasu horietan, bertsolariak ez du arrazoi bat pentsatzeko adina astia edo trebezia izan. Abiatu egin behar du. Eta abiatu egingo da. Noratsu joan nahi duen badaki. Baina dena zaio eskas. Ez dauka errima bat aukeraturik. Ez dauka bukaerako arrazoirik...Eraikinari planoak egin aurretik ekin dio. Eta gaitza da egiten ari zarela planoak egitea. Gainera, entzuleak ez daki planorik gabe ari zarela...Bukaera arriskutsua eta dudamudakoa izango du askotan bertso horrek. Eskarmentuak lagunduko dio bertsolariari baina...

Memoriak hutsegitean gertatzen da antzeko zerbait. Bertsolariak pentsatu du bukaera. Eta ekin dio hasieratik. Badaki nora doan. Baina joanean doala...ahaztu egin zaio bukaerarako gordea zeukana. Orduan huts hutsetik ekarri beharko du ideia bat eta bukaeran ahaztuaren orde txertatu beharko du.

Kasu batean zein bestean, zati erabat inprobisatua eta zati aurrez buruan pasearen arteko oreka hautsi egiten da. Arrazoi desberdinengatik, baina bietan, ohikoak direnak baino zati inprobisatu gehiagorekin aurkituko gara. Baina ez bertsolariak hala nahi izan duelako, hala egitea jasatea tokatu zaiolako baizik.

Erabat kontrako kasua ere gerta daiteke. Bertsolariak goitik beheraino egingo dauka bertsoa. Apenas ezer inprobisatuko duen kanta ahala. Agurretan, okasiorako bertsoetan, omenaldietan...askotan gertatzen da. Lazkao-Txikik "lo egindako bertsoak" deitzen zien horrelakoei. Gaztetxo edo hasiberria denari ere askotan gerta dakiokena da. Kasu hauetan, zati pentsatua eta zati inprobisatuaren arteko oreka lehenengoaren aldera apurtzen da. Eta ez da beti ona. Pentsatzeko nahi hainbat astia izanarren, erabat pentsatutako bertsoa botatzean huts txiki bat aski izaten da eraikin osoa goitik behera etortzeko. Indarrak gogoratzera jarriak baitaude, ez sortzera. Bertsoa, egin ahala egiten da ongien. Eta beste esanpo batekin komunikatzen da gainera.

KANPOTIK EZARRITAKO ARRAZOIAK

Estrategia nagusia ez erabiltzeko arrazoiak inoiz kanpotik ere etor dakiokete bertsolariari. Ohiko ariketa da, puntuari erantzutearena. Kasu horretan estrategia nagusiak ez du ezertarako balio. Gaijartzaileak ipintzen du gaiaz gain, errima-hitza ere. Eta bertsolariak ez du astiarik arestian aipatu ditugun urratsak emateko. Inprobisazioa inon baino inprobisazioago da lan honetan.

Puntukako saioan ere halatsu gertatzen da. Bertsolagunak aukeratzen du errima-hitza eta bertsolariak hark jarriari segitzea baino ez duenez, estrategia nagusia ez zaio baliagarri gertatuko.

Bakarkako lanaz aritu gara orain arte estrategia nagusiak nola erabiltzen diren azaltzeko garaian argigarriagoa gertatzen delako. Baina bertsolaritzaren funtsa temako saioak dira. Tema dago bertsolaritzaren jatorrian. Eta temakoak dira egun ere egiten diren saiorik gehienak.

TEMAKO SAIOAK

Bi bertsolari edo gehiagoren arteko temako saioetan, bertso bakoitza egiteko erabiltzen den modu nagusia lehen aipatu dugun bera da.

Baina teman ari garelarik, bertsolariok denboraren bestelako kudeaketa modu bat egiteko aukera izaten dugu. Barkarka ari dela, bertsolariak bertso baten bukaera pentsatzen du, hasten da kantuan, bukatzen du bertsoa, eta hurrengoa pentsatzen hasiko da. Eta horrela egingo du hiru edo dena direlako bertsoak amaitu arte. Diskursoaren haria osoki dago bere esku. Ez du bere burua ezustean harrapatuko.

Teman ari delarik ordea, bertsolariak txandaka kantatzen duenez, badira bi aldagai nabarmen bakarka ari denean ematen ez direnak:

- Bertsolagunaren argudioak entzungo ditu.
- Denbora aski dauka bertsolaguna kantuan ari dela zerbait pentsatzeko

Teman, bertsolariak lagunari erantzun egin behar dio. Baina ez du horrekin aski. Berak ere sortu behar du. Defenditu eta eraso, ahal delarik neurri egokian nahasirik. Eta astia badu, laguna kantuan ari dela.

Horrek aldagai ugari uzten ditu bertsolariaren eskuetan. Gutxienik, hiru bide har ditzake:

- Norbere arrazoa bota lagunari jaramonik egin gabe.
- Lagunaren arrazoa entzun arte egon eta hark amaitzean bete betean erantzun haren bukaerari, bukaerarekin.
- Tarteko zerbait egin. Hots, norbere arrazonamendu aurrez pentsatuari erantzun moduko bat erantsi eta biekin osatu bertsoa.

Ez da hobetsi daitekeen formularik. Lehenak, dialektikaren haria galtzeko arriskua du. Bakoitzak berea eta berea baino esaten ez badu, nekez txirikordatuko da jarduna. Bigarrenak, erantzule soil izatera darama bertsolaria, bere balizko arrazoen indarra alferrik galduz. Eta hirugarrena berriz, bide epela izaten da askotan, efektista bai, baina ez zintzoegia.

Gainera, aipatu dudan sailkapen moduko hau egokiagoa da gaiak jarrita egiten diren bertso-saioak ikertzeko, gai libreko jardunen ulerpen hoberako baino.

Gai libreko jardunetan, aintzakotzat hartzekoa da bertsolariak bertsolaguna inoiz baino bertsolagunagoa duela. Biek banatu behar dituzte paperak. Biek egin aurre-eskematxoren bat saioaren nondik norakoa taxutzeko. Biek erabaki behar dute bidea. Biek asmatuko dute edo biek hutsegin.